



Helduen literatura

Lehenago zen berandu
Arantxa Iturbe
Alberdania, 1995

Hau ere esnetsu eta zopatsua

LITERATUR LANEN zerrenda mehe baten jabe da Arantxa Iturbe. Agian irriari eskaintzen dizkiolako ordurik behinenak –arratsalde-
ro aritzen zaigu, aste barruan, euskarazko irriati publikoan–. Agian zutabegintzari ematen dizkiolako ordurik librean –igandero argita-
ratzen du artikulatu bat, euskarazko egunkari bakarrean–. Eta, hala ere, literatur lanen zerrenda mehe baten jabe da Arantxa Iturbe. Mehea izanagatik ere, literatur lanen zerrenda interesgarri baten jabe.

1992koa du lehen narrazio bilduma, *Ezer baino lehen*. Gorka Bereziartuak kitatu zituen liburuarekikoak tarte honetan bertan. Besteak beste, best-seller izaera aitortzen zion –“18. edizioa” dioten gerrun-
tze gorriarekin–, baina desberdintasunak –eta indarguneak– seinala-
tzen zizkion nazioartean gehien saltzen den liburu ereduarekiko. Hartara, esan genezake, betetzen zuela Iban Zalduak bere blogean oso zailtzat jotzen duen hura: aldi berean esnetsu eta zopatsu izatea, salmenta handiak –jarri nahi adina komatxo– eta, tira, goi mailako kalitate literarioa ez dakit, baina bai kalitate literario nahikoa, kritikak ere nabarmentzeko modukoa.

1995eko bigarren narrazio bildumak, mintzagai dugun *Lehenago zen berandu* honek, edizio ugari izan ditu –eskuarteau daukadan 2006ko aleak 6. edizioa dela dio–. Beraz, txukun saldu da. Eta kalitate literarioari dagokionez maila nabarmengarria aitortu behar zaio, halaber. Hau ere esnetsua eta zopatsua dela, alegia. Arestian aipatu dugun Zaldua berriz aipatzeagatik, esan, adierazi izan duela inoiz *Lehenago zen berandu* honekin hartu zuela atzera interesa euskarazko literaturarekiko, eta, batez ere, euskarazko narrazioekiko. Eta 95eko kritika apurrek era berean ondo hartu zuten –pentsa, *Goenkale* tele-
sail arrakastatsuen antzik bazeukala esateraino–. Baina guretzat garrantzitsuenak: 2013an gustura irakurtzen direla bertako ipuinak, fresko mantentzen dutela gaurkotasuna.

Izan ere, denborarekin gutxi aldatu diren giza-harremanak dituzte ardatz: gizon-emakumeen artekoak, senar-emazteen artekoak, maitale, lagun, guraso-eme-alaben artekoak. Familia, zentzurik zabalean, eta bere zirkunstantziak harrapatzen dituzte, begirada zorrotz, arretatsu, sarri zirtolari batekin. Umorea baita nabarmendu beharreko beste ezaugarrietako bat, fina. Eta hizkera, azkenik, batere apaindurarik gabea, baina ez horregatik errazkerian erortzen dena.

Ai, ama! eta *Kontu-jaten* aurrekoengandik ezberdinek osatzen dute Arantxa Iturberen literatur lanen zerrenda mehe baina interesgarria. Ordurik behinenek eta ordurik librenek uzten dituzten beste ordu horietan idaztera animatzea, asko eskatzea izango da akaso. ■

Aritz Galarraga



Narraziorako abilezia

ZORION HANDIEGIAK oihartzun zabala izan du hedabideetan, eta ez da harritzekoa. Kontalari aparta da Munro, fin eta itxura batean erraz harilkatu ditu ipuinotako istorioak, eta ororen gainetik, narratzearen plazerak bultzatzen duela ematen du. Ez du formaren edertasuna bilatzen, ez da pertsonaiekiko lerrotzen edo urruntzen. Egoera eta sentimendu korapilatsuak zaizkio interesatzen, eta ataka horietan diren gizon-emakumeak nola ego-
kitzen diren azaltzeak.

Emozio konplexu horiek ilustratzeko zenbait adibide. Lehen ipuineko protagonistari bere hiru haurrak hil dizkio senarrak, eta ustekabeko bideetan barrena saiatuko da min jasanezin hori gainditzeko. Haurren krudelkeria susmagabea hartuko du gaitzat beste ipuin batean, eta bostgarrenean, berriz, aurpegi desitxuratutako bizitzan ekarri dizkion alde onak eta txarrak aztertuko ditu gizon batek.

Liburuaren atzealdeko aipamen batekin guztiz ados nago. “Munro aparteko dohaina erakutsi du landugabea dirudiena –anekdotazkoa– arte bihurtzeko”, Joyce Carol Oates-ek *The New York Review of Books* argitalpenean, eta beste aipamen batzuekin batera, promozio moduan emana da kontrazalean. Sentsazio horixe bera sortu zidan niri ere, nahiz eta batzuetan, idazle kanadarrak joeraz erakusten duen puntu ilun hori gehiegizkoa iruditu. Gustu kontuak. ■



G.U.G.

Zorion handiegia
Alice Munro

Itzultzaileak: Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga, Aiora Jaka, Itziar Otegi. Meettok, 2012

